


Zer da kontrol panela eta zertarako balio du?

Kontrol panela plataformaren goiko atalean eskuin aldean kokatzen da.

Programatzailearen kontua kudeatzeko panela da eta bost blokeetan banatzen da: ekitaldi-programa, kudeaketa eta erreserbak, ordainketa kudeaketa, txostenak eta beste funtzioak.

Kokagunea:



Egitura:

Kontrol panela



1. Nola erabili kontrol panela?

Kontrol panelaren bloke bakoitzak erabilera bat dauka. Ondorengo lerroetan atal bakoitzak zertarako balio duen zehazten da.

1.1. EKITALDI-PROGRAMA

Gertu Kultura plataforman argitaratzen den programazioa kudeatzeko blokea da. Aukera desberdinak ditu:

Ekitaldi-programa


Ekitaldi berri bat altan eman

Ekitaldi eta saioak editatu

Plazak eta erabilgarritasuna
esportatu

Amaitutako ekitaldiak

- **Ekitaldi berri bat altan eman:** atal hau kultur-jarduerak lehen aldiz plataformara igotzeko erabiltzen da. Aukera hau sakatu ondoren ekitaldi berri bat altan emateko eman behar diren urratsak [esteka honetan](#) zehazten dira.
- **Ekitaldi eta saioak editatu:** programazioa edo ekintzak plataforman argitaratu ondoren, ez dira berriz “ekitaldi berri” moduan argitaratu behar. Datak, deskribapena edo beste edozein aldaketa egiteko editatu atala dago. Atal honetan igotako programazio guztia dago, editatu nahi dena bilatu behar da eta ondoren editatu botoia sakatu aldaketak egiteko.



- **Plazak eta erabilgarritasuna esportatu:** datu zehatzak lortzeko atala da. Nahi diren irizpideak sartu eta excell dokumentua deskargatu.
- **Amaitutako ekitaldiak:** ekitaldi baten eskaintza epea amaitzen denean automatikoki atal honetara pasatzen da. Hau da, “ekitaldiak eta saioak editatu” atalean agertu beharrean, honetan agertzen dira epeaz kanpoko jarduerak. Atal honetan ere aldaketak egin daitezke, esaterako datak luzatu, modu honetan ekitaldia berriz ere aktibatuko da.



1.2. KUDEAKETA ETA ERRESERBAK

Programatzaileek jasotzen dituzten erreserbak kudeatzeko panela.

Ondorengo aukerak eskaintzen ditu:

Kudeaketa eta erreserbak

Ekitaldi bakoitzeko erreserbak

Erantzun gabe dauden eskaerak

2

Itxarote-zerrenda

Erreserba eta eskaera guztien zerrenda

*Kontrol panelaren edozein bloketan jakinarazpenak ditugunean horrela aterako dira: borobil gorri bat eta barruan zenbakia.

- **Ekitaldi bakoitzeko erreserbak:** uneko erreserbak eta eskaerak ikusteko bilatzailea da. Ekitaldi motaren arabera erreserbak taldeka sailkatzen ditu plataformak atal honetan. Erreserbak kudeatu atala hautatzean, ekitaldi mota horretako uneko erreserba guztien zerrenda azaltzen da.

MUSEOAK ETA ERAKUSKETAK / KULTURA / Bisita dinamizatzua <u>Igartubeiti Baserri Museora bisita gidatua</u> 2023/11/21 - 2025/12/31 📍 Igartubeiti Baserri Museoa, Ezkio-Itsaso ✎ Erreserbak kudeatu
MUSEOAK ETA ERAKUSKETAK / KULTURA / Bisita dinamizatzua <u>Igartubeiti zure eskura. Bisita sentzoriala</u> 2023/11/22 - 2025/12/31 📍 Igartubeiti Baserri Museoa, Ezkio-Itsaso ✎ Erreserbak kudeatu
MUSEOAK ETA ERAKUSKETAK / KULTURA / Tailerra <u>SAGARTXOTX</u> 2023/11/21 - 2025/12/31

- **Erantzun gabe dauden eskaerak:** uneko eskaerak kudeatzeko atala. Erantzunaren zain dauden erreserben zerrenda ikusiko dugu atal honetan.

Zerrendan dauden erreserbak kudeatzeko, erreserbaren **kodea** edo **erreserbak ikusi** sakatu behar da eta zuzenean erreserba horretan sartuko gara. Bertako, informazio guztia ikusi ondoren, erreserba “onartu” edo “deuseztatu” daiteke. Era berean, erreserba adosteko gizarte zentroarekin hitz egin daiteke mezuen atala erabiliz.

Sortze data	Kodea	Zentroa	Jarduera	Plazak	SR	Egilea	Harremanetarako mugikorra	Tarifa	Kolektibo nagusia	Erreserbak ikusi
2024/05/30 - 19:04	AC-RES-IM-20240530-407		Igartubeiti zure eskura. Bisita sentsoriala - Gestionar todas las reservas	6	0			Gertu	Adimen osasuna	

Deuseztatu

↑

Onartu

↑

Erreserba aldatu

AC-RES-IM-20240530-407

DOAN ESKATUA

Igartubeiti zure eskura. Bisita sentsoriala

PARTE-HARTZAILEAK GUZTIRA: 6

BIDELAGUNAK: 2

URTEAN EGINDAKO ESKAERA: 2024/05/30 - 19:04

Zentroarekin harremanetan jarri

↑

Onartu botoia sakatzean, ekitaldiak saio zehatz bat ez badu (hau da, kontzertua, ikuskizuna edo ekitaldi bat ez bada), eguna eta ordua zehaztea eskatzen du sistemak. Hemen, taldearekin adostutako informazioa sartu behar da.

Zentroarekin harremanetan jarri sakatzean, mezu zuzen bat bidaltzeko aukera irekitzen da.

Zalantzarik edo galderarik baduzu? Mezu bat gehitu

Gaia

Iruzkina *

B *I*

Mezua bidali

- **Itxarote-zerrenda:** uneko jardueren itxaron zerrenda ikusteko atala.
- **Erreserba eta eskaera guztien zerrenda:** uneko eta pasatako erreserbak ikusteko atala. Erreserba guztiak zerrenda batean agertzen dira, ez dira ekitaldi motaren arabera sailkatzen. Irizpide desberdinak erabili daitezke bilaketak egiteko.

BILAKETA LIBREA		DATA. NOIZTIK	NORA
(zentro, ekitaldi edo erreserbaren kodea)		E.g., 2024/08/09	E.g., 2024/08/09
Aukera aurreratuak			
ERRESERBAREN KODEA	EKITALDIA	EKIPAMENDUA	
		- Edozein - Igartubeiti Baserri Museoa	
GIZARTE ZENTROA	KOLEKTIBO NAGUSIA	TARIFAK	
	- Edozein -	- Edozein -	
BEKATUA			
- Edozein -			
EGOERA			
☒ Ordaintzeke	☒ Ordainketa leihatilean	☐ Programatzaileak ukatua/ezeztatua	
☒ Ordaindua/doan	☒ Itxarote-zerrenda	☐ Zentroak baztertua	
☒ Konfirmatzeke	☒ Eskatua		

1.3. ORDAINKETA KUDEAKETA

Ordaintzeko prozesuak kudeatzeko panela da. Ondorengo aukerak eskaintzen ditu:

Ordainketen kudeaketa

Ordaintzeke dauden
erreserbak

Konfirmatzeke dauden
erreserbak

Ordainduta dauden
erreserbak

- **Ordaintzeke dauden erreserbak:** oraindik ordaindu gabe dauden erreserbak agertzen dira atal honetan. Taldeek ordainketa egiten dutenean garrantzitsua da erreserbaren egoera “ordaintzeke” egoeratik “ordaindua” egoerara aldatzea. Pausu hau eman arte jarduera ez da amaitutzat hartzen, beraz, taldeek ez dute balorazioa egiteko emaila jasoko. Ordaindu duten modua ere zehazteko aukera dago.

Deuseztatu

Leihatilan ordaindu

Ordainketa onartu

Erreserba aldatu

- **Konfirmatzeke dauden erreserbak:** ordainketa berresteko zain dauden erreserbak kudeatuko ditugu atal honetan.
- **Ordainduta dauden erreserbak:** prozesua amaitu duten erreserbak ikusiko ditugu atal honetan, dagoeneko ordainketa egin dutenak. Atal honetan dauden taldeek email automatiko bat jasoko dute egindako jarduera baloratzeko.

1.4. TXOSTENAK

Atal honek txostenak egiteko aukera eskaintzen digu. Irizpide desberdinak zehaztuz (datak, kolektiboa, jarduerak, etab.) nahi ditugun datuak lortu ditzazkegu. Lortu daitezke txosten hauek:

Txostenak

Txostenak taldeka

Aretoko txostenak

Kontabilitate-txostenak

Leihatilako txostenak

1.5. BESTE FUNTZIOAK

Bostgarren atal honetan hainbat funtzio desberdin ikusiko ditugu:

Aurkezpen-saioak

Balorazioak

Nire zentro sozialak

Gehitu intzidentzia

Programatzailearen datuak

Erabiltzaileak kudeatu

Nire kontua

- **Aurkezpen-saioak:** saioen informazioa biltzen duen atala.
- **Balorazioak:** ekintzak egin ondoren balorazio bat jartzeko aukera eskaintzen zaie taldeei. Balorazio hauek bi zatitan banatzen dira: mezu publikoa (programatzailearen fitxan agertuko dena) eta mezu pribatuak (programatzaileak bakarrik ikusiko duena). Jasotako iruzkin hauek Balorazioak atalean daude.

5
★★★★★

Ostirala, 2024, Maiatz 24 | Igartubeiti Baserri Museoa

Igartubeiti zure eskura. Bisita sentsoriala

Una bonita experiencia

Ha sido una visita muy bonita y enriquecedora, donde nos han enseñado como vivían en la época. Recomendable 100% para todo tipo de publico.

ZELAETA EGUNERO ZENTROA | Adikzioak

Mezu pribatua.

- **Nire zentro sozialak:** nire ekintza kulturalak erreserbatu dituzten gizarte erakundeen zerrenda ikusiko dugu atal honetan. Informazio zehatzagoa nahi izanez gero, **xehetasunak ikusi** atalean sartu beharko ginateke.

BAGARA

ZENTRO EDO ZERBITZUA KUDEATZEN DUEN ERAKUNDEA: GUREAK INKLUSIO FUNDAZIOA

Donostia-San Sebastián 20006 TARIFAK: Gertu

NIF: G20845707

Adikzioak

Adimen desgaitasuna

Gaixotasun kronikoak

 Xehetasunak ikusi

Centro de Rehabilitación psicosocial Tolosa

ZENTRO EDO ZERBITZUA KUDEATZEN DUEN ERAKUNDEA: CRUZ ROJA GIPUZKOA

Tolosa 20400 TARIFAK: Gertu

NIF: Q2866001G

Pobrezia

Adimen osasuna

- **Gehitu intzidentzia:** arazoren bat izanez gero atal honetan intzidentzia horren berri eman daiteke: gaia, erreserba eta azalpena zehaztu.
- **Programatzailearen datuak:** programatzailearen informazioa biltzen duen atala.
- **Erabiltzaileak kudeatu:** atal honetan erabiltzaile berriak sortu daitezke plataforma kudeatzeko. **Beti** harremanetarako pertsona arduradun bat izendatu behar da, baina beste erabiltzaile batzuk ere sortu daitezke plataforma kudeatzeko. [Esteka](#) honetan jarraitu beharreko pausuak azaltzen dira.
- **Nire kontua:** kontuaren informazioa biltzen duen atala.